

BAKARRIZKETAK

LES BONNES [Neskameak]. Jean Genet

KLARA: Eta eskularru hauek! Betiko eskularru hauek. Mila bider esan eta errepikatu dizut sukaldean uzteko. Horrekin, imajinatzen dut, espero duzu esneduna maitemintzea. Ez, ez esan gezurrik. Alferrik da. Eskegi itzazu harraskaren gainean. Noiz ulertuko duzu gela hau ez dela profanatu behar? Sukaldetik karkaxak baino ez datoz. Irten. Eta eraman itzazu zeurekin karkaxok. Baina geldi. Ez lotsatu; egin mindulin-plantak. Eta, batez ere, ez zaitetz azkar ibil. Sobran dugu denbora. Irten! Prestatu nire soinekoa. Azkar, ez dugu astirik. Ez dago hemen? Klara! Klara!

SOLANGE: Barka naza berorrek, arren. Berorren infusioa prestatzen ari nintzen.

CLARA: Prestatu nire jantziak. Soineko zuri lentejueladuna. Haizemailea, esmeraldak.

SOLANGE: Bai, andrea. Berorren bitxi guztiak?

CLARA: Atera itzazu. Nik neuk aukeratu nahi dut. Eta, noski, txarolezko zapatak. Aspalditik hainbeste irrikatzen dituzun horiek. Ezkontzarako, imajinatzen dut. Aitor ezazu seduzitu egin zintuela. Haurdun zaudela. Aitortu. Esan dizut, Solange, karkaxarik ez ateratzeko. Zure gorputzean egin dezatela lo, neska, eta bertan usteldu daitezela. Ja! Ja! Bertan ito dadila galdutako ibiltaria. Ja! Ja! Zatarra baino zatarragoa zara, laztana. Makurtu gehiago, eta begiratu zure burua nire oinetakoetan. Uste duzu gustuko dudala oina zure listuaren geruzen/beloen?? artean bilduta daukadala jakitea? Zure zingiretako lanbroen artean?

SOLANGE: Berorri eder egotea nahi nuke.

CLARA: Egongo naiz. Gorroto nauzu, ezta? Ito egiten nauzu zure adeitasunarekin, zure apaltasunarekin, zintabellarrekin eta herezearekin. Alferrikako enbarazua baino ez zara. Lore gehiegi dago. Hilgarria da. Eder egongo naiz. Zu zeu bizitza osoan inoiz izango zaren baino gehiago. Gorputz horrekin eta aurpegi horrekin inoiz ez duzulako Mario seduzituko. Mespretxatu egiten gaitu esnedun gazte horrek, eta umea egin badizu...

HISTORIA DE UNA ESCALERA [Eskailera bateko istorioa]. Antonio Buero Vallejo

FERNANDO, semea: Carmina! Carmina!...

CARMINA, alaba: Fernando! Ikusten? Ikusten duzu ezinezkoa dela.

FERNANDO, semea: Bai, izan daiteke! Ez diezazula haien zikintasunak gain egin. Zer eduki genezake amankomunean haiek eta guk? Ezer ez! Zaharrak eta baldarrak dira. Ez dute ulertzen... Irabazteko egingo dut borrokan nik. Zure eta nire alde egingo dut borrokan. Baina lagundu egin behar didazu, Carmina. Fidatu egin behar duzu nitaz eta gure maitasunaz.

CARMINA, alaba: Ezingo dut!

FERNANDO, semea: Bai, ahal izango duzu. Ahal izango duzu... neuk eskatzen dizudalako. Gure gurasoek baino indartsuago izan behar dugu. Gain egiten utzi diote bizitzari. Hogeita hamar urte eman dituzte eskailera honetan gora eta behera... Egunez egun gero eta doilorrago eta trauskilago. Baina guri ez digu irabaziko giro honek. Ez! Ospa egingo dugulako hemendik. Batak bestea babestuko du. Gora egiten lagunduko didazu, etxe ziztrin hau betiko atzean uzten, etengabeko liskar hauek, estutasun hauek. Lagunduko didazu, ezta? Esan baietz, mesedez. Esadazu!

CARMINA, alaba: Behar zaitut, Fernando! Ez nazazu utz!

FERNANDO, semea: Neure neskatxo hori! Carmina, berehala hasiko naiz lanean, zugatik. Proiektu asko ditut! Irten egingo naiz hemendik. Utzi egingo ditut gurasoak. Ez ditut maite. Eta zeu salbatuko zaitut. Nirekin etorriko zara. Atzean utziko dugu gorrotoz eta basakeriaz betetako habia hau.

CARMINA, alaba: Fernando!

FERNANDO, semea: Bai, Carmina. Hemen basakeria eta ulertezina besterik ez dago guretzat. Entzun. Zure maitasuna falta ez bazait, gauza askori ekingo diet. Lehenik, aparejadore egingo naiz. Ez da zaila! Hemendik urte batzuetara aparejadore on bat izango naiz. Diru asko irabaziko dut, eta eraikuntza-enpresa guztiak izango ditut atzetik. Ordurako, ezkondata egingo gara... Gure etxea izango dugu, alaia eta garbia... hemendik urrun. Baina ez diot horregatik utziko ikasteari. Ez, ez, Carmina! Orduan, ingeniari egingo naiz. Herrialde osoko ingeniari onena izango naiz, eta nire emakume maitea izango zara zu...

CARMINA, alaba: Fernando! Hau zoriona!... Hau zoriona!

FERNANDO, semea: Carmina!

TALK TO ME LIKE RAIN AND LET ME LISTEN [Hitz egidazu euriaren modura eta uztazu entzuten]. Tennessee Williams

GIZONA: Esnatu nintzenean, erdi urtutako izotz-zatiz eta Millerren High Life garagardoz betetako bainuontzi batean nengoen. Azala urdina nuen. Izotzez betetako bainuontzi batean ari nintzen itotzen. Ibai baten ondoan zen, baina ez dakit Ekialdeko ibaia ala Hudson ibaia zen. Hiri honetan barrabaskeriak egiten dizkiote edozeini konorterik gabe dagoenean. Min ematen dit gorputz osoak, eskailera batean behera ostikoka bota izan banindute bezala. Ez erori banintz bezala, ostikoak eman balizkidate bezala baizik. Gogoan dut behin ilea arrasean moztuta utzi zidatela. Beste batean, kalezulo batean zegoen zaborrontzi batean sartu ninduten, eta gorputz osoan ebakiak eta erredurak nituela irten nintzen handik. Jende zitalak abusatu egiten du norbait konorterik gabe dagoenean. Esnatu nintzenean, biluzik nengoen erdi urtutako izotz-zatiz betetako bainuontzi batean. Arrastaka irten nintzen handik, eta egongelara joan nintzen, eta, ni sartzean, besteren bat irten zen beste atetik, eta nik atea ireki nuen, eta entzun nuen igogailuaren atea ixten, eta hotel bateko korridore bateko atea ikusi nituen. Telebista martxan zegoen, eta, aldi berean, disko bat entzuten zen; egongela mahai gurpildunez zegoen beteta, eta mahaiak mukuru beteta zeuden hoteleko zerbitzariak igo bide zituzten gauzez, eta urdaiazpiko osoak, indioilar osoak, hiru pisuko sandwichak, hotzak, lehortzen ari zirenak, eta botilak, eta botilak, eta edari-mota guztietako botila gehiago, ireki ere egin ez zirenak, eta izotz-zatiak urtzen zeuzkaten ontziak. Norbaitek atea itxi zuen ni sartzean... Sartu nintzenean, baten batek alde egin zuen. Ate bat entzun nuen ixten, eta atera joan nintzen, eta igogailu baten atea entzun nuen ixten... Ibai ondoko apartamentu haren zorutik... gauzak, arropak... barreiatuak... Bularretakoak... prakak... alkandorak, gorbatak, galtzerdiak... eta beste gauza asko...

EMAKUMEA: Arropak?

GIZONA: Bai, era guztietako jantziak, eta beira hautsiak, eta altzari irauliak, han iskanbila ikaragarri bat egon eta apartamentuan sartu balitz bezala... nor eta polizia...

SOMETHING UNSPOKEN [Esan gabeko zerbait]. Tennessee Williams

GRACE: Esaten ez den zerbait dagoela esaten duzu. Beharbada, egongo da. Ez dakit. Baina badakit gauza batzuk hobeto geratzen direla esan gabe. Badakit, gainera, bi pertsonaren artean isiltasuna asko luzatu denean erdian paratzen zaien pareta zeharkaezin bat bezalakoa dela. Beharbada, pareta hori bera dago gure artean, zeharkaezina den horietako bat. Edo, beharbada, zuk zeharkatu dezakezu. Nik badakit neuk ezin dudala. Ezingo nintzateke saiatu ere egin. Urduinduta daukagu ilea biok. Baina ez kolore berberarekin. Belusezko estalki horren barruan, Tiberio enperadorea dirudizu. Toga inperiala eta guzti! Ileak eta begiek altzairuaren kolorea hartu dizute. Altzairu grisa. Gauza garaiezin baten airea duzu! Jendeak ia... beldur pixka bat sentitzen du zure aurrean. Zure indarra nabaritzen dute, eta berarengatik miresten zaituzte. Honi edo hari buruzko iritzi baten bila jotzen dute zugana. Zer komedia ikusi behar diren denboraldian, zer liburuk merezi duten irakurtzea eta zein diren zabor hutsa, eta zer... zer diskok merezi duten... edo zein den erreakziorik egokiena Kongresuko lege jakin baten aurrean. Zu jakituria-iturri bat zara! Horretaz gain, hortxe dago zure aberastasuna ere. Bai, zure... dirutza. Zure jabetza guztiak, zure balio handiko akzioak eta tituluak, Ribereña etorbidean duzun jauregia, zure idazkaritxo lotsati hura... zure... lorategi zoragarriak, Erromesak sartu ezin diren horiek.

CORNELIA: O, bai! Oraintxe hitz egiten duzu. Bazabiltza hizketan, behingoz. Segi, segi hizketan.

GRACE: -Ni... oso... desberdina naiz. Nik ere urdintzen daukat ilea, baina nire ileen kolorea ez da berdina. Ez da zurea bezalakoa, altzairuarena... Ez da inperiala, Cornelia, grisa baizik... bai, gris bat... amaraunen kolorea bezalakoa. Zikindu den gauza zuriren baten... ahaztu diren gauzen grisa. Horrela horrela,... Hori denez gero gure bi gris-moten arteko aldea, zurea eta nirea... ez duzu espero behar ausarki erantzungo ditudanik... isiltasun-etxeari... ikara eragiten dioten galderak... Hitzez adieraziko ditudanik hamabost urtean hitz egin gabe egon diren gauzak. Denbora luze horretan, isiltasuna horma bihurtzen da, dinamitak baino menderatu ezin duen isiltasuna, eta... Ez dut indar nahikorik, ausardia nahikoa. Ez naiz...

ROBERTO ZUCCO. Bernard-Marie Koltès

ANAIA: Ez izan nire beldur, laztantxo. Ez dizut minik egingo. Zure ahizpa tentel hutsa da. Zergatik uste du nik zu joko zaitudala? Orain emakumea zara, eta nik ez dut inoiz emakume bat jo. Asko gustatzen zaizkit emakumeak; horixe da gehien gustatzen zaidana. Arreba txikia edukitzea baino askoz hobea da. Arreba txiki bat nekagarria da. Begiratu egin behar da denbora osoan, begietatik galdu gabe. Zera babesteko... zer?, haren birjintasuna? Zenbat denbora egon behar da arrebaren birjintasuna zaintzen? Alferrik galdutako denbora da zu jagoten eman dudan denbora guztia. Eta denbora horren falta sumatzen dut. Faltan dut zu zaintzen galdu dudan egun bakoitza, ordu bakoitza. Hobe litzateke neskatilak neskaita diren bitartea desloratzea; horrela, anaia zaharrenak bakean egongo lirateke, ez bailukete zer zaindurik izango, eta behar beste denbora erabiliko lukete beste arazo batzuetan. Pozten naiz utzi diozulako tipo bati zu bortxatzen, orain bakea daukat eta. Zu zure bidetik zoaz; ni, neuretik: ez zaitut gurutze bat bezala eramango. Zatoz nirekin kopa bat hartzera. Orain begiak ez jaisten ikasi behar duzu, ez gorritzen, eta ausartu mutilei aurpegira begiratzen. Amaitu da hori guztia. Izan zaitez lotsagabea. Altxatu burua, begiratu mutilei, begiratu aurpegira, izugarri gustatzen zaie. Ez du ezertarako balio minututxo bat gehiago ere zintzo-zintzoa izaten ematea. Nabarmendu zaitez, neskaita, eta albait lasterren. Utzi zure berezko joerei aurrera egiten; zoaz Chicago txikira putekin kalean barrena aritzera; bihurtu puta: sosak irabaziko dituzu, eta ez zara inoren menpe egongo. Eta, alterneko tabernetan egiten badugu topo, keinu bat egingo dizut; tabernako anai-arrebak izango gara: ez da hain aspergarria, eta gehiago dibertitzen zara. Ez galdu denbora begirada jaisten eta hankak ixten, laztantxo: horrek ez du ezertarako balio. Dena dela, pikutara joan da orain ezkontza. Merezi zuen ezkontzarako zu zaintzen egotea, merezi zuen begiak lotsati jaitea ezkontza-egunera arte, baina, orain, izorratu egin da ezkontza. Nahi duzuna egin dezakezu: utzi diot zu zaintzen ibiltzeari, eta zu ez zara neskaita bat. Ez duzu adinik: hamabost edo berrogeita hamar urte izan ditzakezu; gauza bera da. Emakumea zara, eta berdin dio mundu guztiari.

FRÖKEN JULIE [Andereño Julia]. August Strindberg

JULIA: Zu ez zara inoiz hemendik irten; ez duzu inoiz bidaiarik egin... Sasoia duzu mundua ikusteko! Ezin duzu imajinatu zein dibertigarria den trenbidez bidaiatzea... Etengabe ikusten dira aurpegi berriak... herrialde berriak... Lehenik Hanburgora iritsiko gara, eta Lorategi Zoologikoa bisitatuko dugu... Ikusiko duzu nola gustatzen zaizun... Antzokira joango gara gero, Opera ikustera... Gero, Munichera. Han izango ditugu Rafael eta Rubensen koadroak dituzten museoak, bi margolari handi, dakizun bezala. Entzungo zenuen Munich buruzko zerbait; Luis erregea bizi izan zen bertan, eta zoratu egin zen. Ez duzu gogoratzen egunkarietan irakurri izana? Bada... gaztelu hori ikusiko dugu... Ez dago haren parekorik... Maitagarrien ipuin bat dirudi. Handik Suitzara... Alpeetan zehar... Alpeetan zehar... Entzuten duzu?... Uda erdian elurra dagoela... eta laranjondoak eta erramu berdeak urte osoan.

Han hotel bat egingo dugu... Ni kutxan egongo naiz, eta Juanek bidaiariak hartuko ditu. Irten, erosketak egin, eta gutunak idatziko ditu... Hori... hori da bizimodua. Txistuka entzungo da trena, badator autobusa, txirrinak entzuten dira, jatetxetik deitzen dute. Gero, neuk egingo ditut kontuak... Hor. Ikusiko duzu zer lotsatiak diren bidaiariak kontua ordaindu behar dutenean... Eta zu... zu... sukaldeko erregina. Normala denez, zuk ez duzu ez lapikorik ez bestelako trasterik ere ukituko... Ugazabandre bat bezala jantzita egongo zara, eta, azaltzen zarenean... gorpuzkera horrekin, aurpegi horrekin... O! Ez da lausengatzea: edozein egunetan harrapatuko duzu gizon bat... Ingeles bat, adibidez... Jende hori oso erraz atzematen da... Diru asko irabaziko dugu, eta etxe eder bat eraikiko dugu Como aintziraren ertzean... Euri asko egiten du han, egia da, baina eguzkiak ere egiten du distira batzuetan, leku ospel xamarra bada ere... Tira, nahi dugunean itzuliko gara, hona nahiz beste edozein tokitara...

DEATH OF A SALESMAN / SALTZAILE BATEN HERIOTZA

BIFF: Hogeia edo hogeita hamar lanpostu izan ditut etxetik alde egin nuenetik, gerra aurrean, eta emaitza berbera izan da beti. Orain dela gutxi konturatu nintzen horretaz. Nebraskan, ganadua zaintzen ari nintzenean, bi Dakotetan eta Arizonan, eta, orain, Texasen. Uste dut horrexegatik itzuli naizela etxera, konturatu egin naizelako. Lan egiten dudan etxalde horretan... Han udaberria da orain, badakizu?, eta hamabost bat moxal jaio dira. Ez dago ezer liluragarriagorik edo... ederragorik behor bat bere moxal jaioberriarekin ikustea baino. Eta han fresko egiten du urte sasoi honetan, badakizu? Orain fresko egiten du Texasen, eta udaberria da. Eta udaberria iristen den bakoitzean, edonon egonda ere, sentrazio hori izaten dut bat-batean. Jesus Jauna, ez naiz inora ailegatuko! Zer demontre egiten dut denbora alferrik galtzen zaldiekin astean hogeita zortzi dolarren truke? Hogeita hamalau urte ditut; etorkizuna antolatu beharko nuke. Orduantxe itzultzen naiz etxera laster batean. Eta, hemen nagoenean, ez dakit zer egin neure buruarekin. Beti izan dut bizitza alferrik ez galtzeko asmoa, eta, hona itzultzen naizen bakoitzean, konturatzen naiz alferrik galtzea besterik ez dudala egin.

DAYS OF WINE AND ROSES [Ardo- eta arrosa-egunak]

LUIS: Kaixo, Luis dut izena, eta... alkoholikoa naiz. Zaila da honetaz hitz egitea... oso zaila. Badakit guztiok hitz egin duzuela nire aurretik... eta badakit inork ez nauela epaituko, baina, hala ere, oso zaila da. Asko kostatu zait honaino etortzea, eta, egia esanda, oholtzarantz nentorrela, arineketan alde egitekotan egon naiz. Beno, oraindik arineketan irtetekotan nago, eta inguruko edozein tabernatara joan eta kopa bat eskatu, pixka bat lasaitzeko baino ez, baina gero beste bat eta beste bat etorriko dira... Eta, horrela, berriro atzeratuko dut mozteko erabakia, daramadan bizitza amaitzeko erabakia. Baina ez... ez naiz hemendik joango.

Ondo irten zait dena: maite dudan emakumearekin ezkondua, haur zoragarri batekin, lan on batekin... bizitza perfektu bat. Beti amestu dudan bizitza. Baina orain hemen nago ez dudalako nora joanik hona ez bada. Edaten hasi nintzen jendearekin harremanak izateko. Hori uste nuen. Etenik gabeko lanaldien ostean, elkarrizketa-, festa-, ospakizun-, aurkezpen-gauen ostean, atsegina, dibertigarria, zorrotza... izan behar nuen. Askoz gehiago, askoz gehiago: jatorrena, umoretsuena, lagunkoiena... onena. Onenarentzako mundu bat, neu, onenen artean. Ni arduratzen naiz... arduratzen nintzen harreman publikoez. Orain dela hilabete pare bat galdu nuen lana behin betiko. Lehenengo urteak onak izan ziren, benetan. Ondo pasatzen genuen: jendea, jaiak... inoiz gelditu gabe. Oso ondo pasatzen genuen. Uste nuen guztia primeran zihoala. Orain argi dago ezetz. Ematen du bizitza ona izanik ere ez dela nahikoa. Ematen du nor bere bidetik irten eta bakarrik beste bide zailago bat aurkitzen duela. Uste duzu zure mundua leku hobea, dibertigarriagoa bihurtzen ari zarela, baina hondatu baino ez duzu egiten dena. Tristeena da nik banekiela funtsean gero eta okerrago egiten nituela gauzak... baina jarraitu egiten nuen. Ezin nintzen sosegatu: ezin nintzen egun batean lasaitu, trankil eseri telebista ikustera edo emaztearekin hitz egitera... edo semearekin jolastera. Ez, ezin nuen. Eta oraindik sentitzen dut ezin dudala egin. Lasai egon. Horixe baino ez dut nahi. Jende arruntak egiten dituen gauzak egin. Behingoz gizon on bat bezala jokatu eta gauzak ondo egin. Horixe besterik ez dut nahi. Beste guztia berdin zait. Lasai egon nahi dut. Eta arnasa hartu. Eta joan dadila hain aspalditik sentitzen dudan larrimin hori. Hori bakarrik.